

Bizikidetza, heziketa eta teknologia

Ainhoa Ezeiza eta Javier Encina

Garaia iritsi da bilatzeko giza-kolektibitate zehatzek euren beharrak asetzeko zein hesiren barruan erabil dezaketen teknika, besteei kalterik eragin gabe. Ivan ILLICH (2015:112).

Azken urte hauetan askotan egokitu zaigu IKTak eskolan eta ikasgelan nola erabili eztabaidatu den foroetan parte hartzea. Galderak berak erakusten du zer gertatzen ari den eskola menderatzailean: tresnak pertsonen aurretik jartzen ari dira. Tresnak ez dira neutroak, aitzitik, ideologitzaileak eta gizartearen egituratzaileak izan daitezke, Jesús MARTÍN-BARBEROk (2015:5) dioen modura, “gizarte garaikideen *dimentsio estruktural* bilakatu dira, eta dentsitate sinboliko eta kulturalaz betetzen ari da, aldi berean”, eta Jeremías QUIÑONESEkin jarraituz (2015:27), “azken urteotan hezkuntza prozesuan teknikoa eta teknologikoa izugarri ugartu izanak pedagogiaren hustutze handia eragin du eta pedagogia tresna tekniko bihurtu du, diseinu instrukzionalaren itzulerarekin batera”.

Hala, IKTak, beste teknologia batzuekin gertatu den bezala, giza-jarduerari laguntzeko tresnak izatetik gizartearen ardatz egituratzailea izatera pasa dira. Eraldaketa hau Estatuarentzat mesedegarria da, izan ere, kultura instituzionalaren bitartez ezagutza zerbait unibertsala, estandarizatua, homogenea, akritikoa dela planteatzea lortu du, eta Jesús MARTÍN-BARBERO parafraseatuz (2015:9), gizakien oinordekotza kulturaletatik lokabetua; horrek ezagutzarako sarbide librearen eta ezagutza librearen arteko nahasketa interesatua eragin du. Teknologiak bi helburu bete ditu horrela: alde batetik, Estatuaren kontrola handitzen du ezagutzaren kontrolaren bitartez; adibide argia da

MOOCen ugaritzea (*Masive Open Online Courses*, ikastaro ireki masiboak online), gobernuek eta munduko unibertsitate handiek sustatu dutela (Ainhua EZEIZA eta beste, 2013); beste aldetik, eskolaren modernizazioaren eta aurrerapenaren irudia islatzen du, irakaslearen eta ikasleen arteko harreman-arazoak euren artean teknologia jarritz konpontzen dituelakoan.

IKTak sartzea Estatuarentzat mesedegarria bada, zer esanik ez Merkatuarentzat, Estatuarekin kolaboratzeak ekarri dion etekin ekonomiko zuzenagatik (ez dezagun ahaztu *Escuela 2.0* Plana Ekonomia eta Industria Ministeritzak sustatu zuela, ez Hezkuntzakoak), eta masa-kultura indartzen delako ere bai: IKTak hezkuntza sisteman txertaturik, beren erabilera legitimatzen da eta debeku-betebehar joko batean sartzen da, Estatuak eta Merkatuak sortutako interesen erritmoaren arabera.

IKTak eskolatik kanporatu behar ditugula esan nahi du horrek? Gure ustez, kontua ez dago hor, galdera aldatzean baizik: zertarako behar ditugu zein tresna? (eta nola, noiz, non, norekin...).

IKTak behar gisa kontzeptualizatu dira bai Estatutik (konpetentzia digitalak, ezagumen beharra...), bai Merkatutik (adiskidetasuna, maitasuna, afektua, askatasuna...) eta gainerako beharren maila berean kokatu dira. Telebistak edukien bitartez eskuhartzten du (jendeak telebista «objektu» gisa identifikatzen du); IKTen jauzia da jendeak pertsonak ikusten dituela bertan: lagunak, harremanak... eta horregatik bihurtu dira behar berri bat: «konektatuta egoteko beharra», fetitxismoaren kontzeptualizaziotik oso gertu dagoen kontzeptua, hau da, “objektuei ezaugarri magikoak egozte, publizitateak eskaintzen duen modura kontsumitzaileengan eragina izateko, eta aldi berean, ezaugarri sozialak objektu bihurtzea” Mariano FERNÁNDEZ ENGUITA, 1985:166.

Giza-harremanak sinplifikatzen dira horrela, zentzumenetatik bi erabiliz ia soilik: ikusmena eta entzumenak, eta horri zentzumen faltsu berri bat gehituko litzaioke: konektibitatearen zentzumenak. IKTek giza-harremanetan suposatzen duten urruntze fisikoak besteekin egoteko moduak aldatu ditu, «presente ez dauden diktadura» deitu dioguna, ia inoiz alboratzen ez dugun teknologia izanik, gure arretaren orientazioa markatzen dutelarik. Erlazionatzeko modu berri hauek harreman eta afektu pobrezia eragin dezakete, egon gabe egoteagatik eta aldi berean leku askotan egon nahi izateagatik.

Ezagumen beharra ere pobretzen da tresna hauen bidez, mundua teknologiaren bitartez antzemateko joera nagusitzen ari delako, irudimena erregulatuz eta ezagutzarekin elkarreragiteko moduak finkatuz. Haurtzaindegietan eta haur hezkuntzako eskoletan tabletak erabiltzeko proposamenek, adibidez, ingurunearekiko elkarreragin pobrezia eragin dezakete, arreta pantailara eramaten dutelako; proposamen horiek ikaskuntzaren eraginkortasunaren inguruko ideia murriztaileek eragindakoak dira, eta ideia hauen atzean, esan beharra dago neurri handi batean enpresa multinazionalen diru-iturriekin egindako hezkuntza ikerketak daudela, kasualitatez beti ondorioztatzen dutenak IKTen bidez ikas-eremua hobeak lortzen direla... (*Samsung, Fundación Telefónica, Microsoft* eta antzerako makroenpresak egoten dira ikerketa hauen sustatzaileen artean).

Komunikazioa ustez konplexutzen duen teknologia honek (multimedia elementuekin, elkarreragin elektronikoaren bidez, etab.), berez mugatu egiten du, eta espazio eta denboretan gertatzen diren harreman aberatsak sinplifikatzen ditu. Garrantzitsuagoa dirudi bideo bat grabatu eta sare sozialetan jartzeak (konektibitatea) festaz edo kontzertuaz zure lagunekin disfrutatzeko baino (harremanak). Libre zara nahi duzunarekin nahi du-

zunean konektatuta egoteko, zauden lekuan zaudelarik ere, harremanak infinituak direlako... baina gero ez dakigu aldamean dugunarekin elkarreragiten (edo, okerrago, ez dugu inolako interesik).

Teknologiak ezagutzak eskuratzeko erraztasuna eta konexioa eraikitze kolektiboarekin nahasten du. Ezagutza berdintasunean konpartitu ahal izateak harremanetarako bide berriak zabaltzen ditu, kultura instituzionalarekiko mendetasuna murrizten duelako; zaila da, ordea, kolektiboki eraikitzea IKTen bidez, euskarri digitalak ez direlako horretarako egokiak. Erraza da ezagutzabiltegiak, blogosferak, foroak... sortzea, baina hauek nagusiki norbanakoak sortutakoaren erakusleihu dira, gero hortik nahi duenak nahi duena har dezan, harreman-beharrik gabe.

IKTek joera dute giza-ezagutza eta harremanak lurraldetzeko, zatikatzeko, gauza bakoitza leku batean gordetzeko (hezkuntzari lotutako blogak, sare profesionalak, lana aurkitzeko tresnak, bikotekidea aurkitzeko sareak...). Elkarreraginaren helburuaren arabera bereizten dira, eta horrela aurrez definitutako harreman instrumentalak eragiten dituzte.

Komunikatzeko teknologia berrietatik, elkarrekin egoteko moduak aldatzeko saiakera argi bat dago, espazio eta denboraren pertzepzioak aldatuz. [...] Denbora betiereko orainaldi bilakatzen da eta horrek iraganeko esperientziak ahultzen ditu eta etorkizuneko eraldaketak eragozten ditu.
Beatriz LUQUE eta Javier ENCINA (2007:29).

Teknologia eta jabe-gabetzearen zutabeak

Gure bizipenek erakutsi digute jabe-gabetzearen zutabeak lagungarriak direla eskolan IKTen erabileraren inguruan erabakiak hartzeko. Adibide hauek landu ditugu, besteak beste:

- Zaintzek pribatutasuna lantzen laguntzen digute, baita IKTen bitarteko harremanak ere, ze zenbaitetan adierazpen negatiboak anplifikatzen dituzte (irainak, mespretxuak...) urruntasun fisikoak eraginda, eta elkar zaintzeak, berriz, itxaropena pizten du helburu eta helmuga pertsonaletan itxi ordez elkarren arteko laguntza indartzeko.
- Askatasunak eta konfiantzak eraikitze kolektiboa zabaltzen dute, jakintza herrikoiak eta sarean eskuragarri dauden eza gutza akademiko-zientifikoak elkarlotuz.
- Alaitasunak, askatasunarekin eta konfiantzarekin batera, masa-kulturatik proposatutako erabilerak berrasmatzen laguntzen du (*youtuberrak*, *instagramerrak*, *twitstarrak* eta exhibizionismo mediatikoaren beste forma horiek) eta beste erabilera batzuk ematen zaizkie zeinetan prozesuan gertatzen diren harremanak garrantzitsuagoak diren ekoiztutako produktuak baino.
- Desazkundeak Merkatuaren eta zaharkitze programatuaren aurrean babesten gaitu. Kontua ez da teknologiarik ez erabiltzea, baina inportantea da ez erortzea kontsumoaren amarrutan, eta hartzen ditugun erabakietan gure ingurune soziala eta naturala aintzat hartzea. Gainera, IKTen ekoizpenean ustiaketa bortitzeko egoeran erauzten diren osagai kutsakorak erabiltzen direnez, etikoagoak izan beharko genuke ondasun materialak eskuratzeko, erabiltzeko eta desegiteko moduetan.
- Eraikitze kolektiboa eta autonomia eta elkarren beharra: egiten dugun guztia norbanakoaren jakintza pertsonal eta kulturaletatik abiatzen da, eta desberdintasun hori errespetatuz eta beste jakintza batzuekin erlazionatuz partekatzen da; IKTek informazioa jasotzeko moduak malgutzen dituenez, eraikitze kolektiborako mesedegarriak izan daitezke, baina ez

dira nahikoak. Argi izan behar dugu ezagutzen batuketa eta eraikitze kolektiboa elkarrengandik urrun dauden kontzeptuak direla, eraikitze harremanak funtsezkoak direlako.

Eskola bizikidetza-tresna gisa

IKTak beharra izatetik asebetetzailerik posibleetako bat izatera pasatzen badira, errazagoa izango da tresnen inguruko debatea: tresnak ez dira helburu, baizik eta hautatzen dira, sortzen dira, moldatzen dira eta bete behar duten zereginaren arabera erabiltzen dira. Horrela konturatuko gara telefono mugikor bat ez dela seguruenik behar afektiboak asetzeko tresna aberatsena izango. Debatea zabaltzen da, baita aukerak ere, izan ere, argi badugu zertarako, zer eta norekin egin nahi den, errazago eztabaidatu daiteke nola egin: IKTak erabiliz ala ez, noiz, non...

Ba horixe bera proposatu nahi dugu «eskola-tresna»ri buruz: eskola ez da behar bat, ezagumen-beharra (eta agian, bigarren mailan, afektu, harreman, partaidetza, identifikazio... beharrak) asetzeko tresna bat besterik ez da, beste tresna batzuk bezala. Horrela ulertuko dugu tresna bakoitzak zein aberastasun eta aniztasun duen behar bakoitza asebetetzeko.

Eskola ezagumen-beharraren asebetetzailerik inportanteena eta derri gorrezkoa izendatzen denean, IKTekin gertatzen den gauza bera gertatzen da:

- Ezagutzaren merkantilizazioa eta estatalizazioa: jakintza herrikoiak mespretxatzen ditu eta testu-liburuak, material digitalak eta bestelakoak ekoizten dituzten enpresen esanetan jartzen da; azkenean, enpresa hauek dira eskolako materialen merkatua kontrolatzen dutenak.
- Ezagutza estandarizatuak eta deslokalizatuak: zientifikotzat jotzen dituen ezagutza batzuk azaltzen dira baina, didaktiza-

tzen direnez, deskontestualizatu eta sinplifikatzen dira (ez dira xumetzen), ondorioz soilik modu errepikatzailean errepika daitezke. Zenbait kasutan, ezagutzak partekatuak izan daitezke edo lekuan lekukoak, baina oso gutxitan eraikitzen dira kolektiboki.

- Informazioa eskuratzeko moduak sinplifikatzen dira: ikusmena eta entzumena dira nagusi, idatzizkotasunerako joera handiz. Pentsatzea da garrantzitsuena (baina modu akritikoan), bigarren mailan uzten da egitea (beti irakaslearen agintepean) eta sentitzea «kontrolatzen» ikasi behar den zerbait da («emozioen kudeaketa»).
- Ezagumen-pobreziaz gain (ezagutza hain mugaturik eta finaturik egoteagatik), harreman-pobrezia eragiten da, harreman sozialak instrumentalak direlako (rolen arabekoak, irakasleak erabakitako zereginen arabekoak...). Kooperatzen da, baina soilik irakasleak ezarritako moduan eta ezarritako ebaluazio-irizpideen mugen barruan.
- Afektu-pobrezia, eskolan «egon gabe» dagoelako jendea, burua beste nonbait duelarik, beste leku batzuetan egon nahirik. Eskolan egoteko burua eta gorputza bereizi behar dira, gorputza modu batera (eserita egonda batez ere) eta burua beste modu batera (edukiak errepikatuz) entrenatzen da, eta horretarako inguruko pertsonengandik urrundu behar da.
- Eskolan konektibitatea eduki behar den zerbait da (ez derrigor erabiliko den zerbait), eskolaren modernizazioa frogatzeko. Aldi berean, ikasleek konektatuta egoteko bizi duten beharraren aurrean, kontrol-indar gisa funtzionatzen du (bigarren hezkuntzan batez ere). Fetitxismoaren kontzeptualizazioa indartzen da horrela.

Bizikidetza-gizartea eraikitzeko tresnak

Bizikidetza-gizartea deritzot tresna modernoa kolektibitatean integratutako pertsonaren mesedetan dagoeneko gizarteari, eta ez tresna espezialista-multzo baten mesedetan dagoen gizarteari. Bizikidetzakoa da gizakiak tresna kontrolatzen dueneko gizartea. Ivan ILLICH (2015:80).

Gure ikuspegian, Ivan ILLICHek aipatu zuen atalase kritikoa beharren eta asebetetzailen arteko eztabaidan kokatzen dugu: beharrak zein diren argitu behar dugu eta une eta leku bakoitzean asebetetzaille proposena zein den jakin, gure ingurune sozial eta naturalarekin harmonian. Tresna jendearen gainetik ez ezartzeko modu bat da.

Hori gerta dadin, tresnek honelakoak izan behar dute:

- Xumeak (ez «sinpleak»), jendeak bereganatzeko eta moldatzeko, ez erabiltzea erabakitzeko...
- Ez dira monopolio baten menpekoak izan behar edo praktika monopolisten menpekoak. Eskola menderatzaileak ezagumen beharra asetzeko dauden beste tresna batzuen balioa ezabatzen du, edo ospitaleek osasuna asetzeko jakintza herrikoien balioa ukatzen dute.

IKTak, edo eskola, tresna gisa erabiltzen baditut, edo asebetetzaille gisa, beste tresna edo asebetetzaille batzuen parez pare, *a priori* ez dakit erabili beharko ditudan ala ez; segun eta zertarako, zer, norekin, non nagoen, nola sentitzen naizen.... Horrela ez egiteak 0 eta 1en artean hautatzera behartzen gaitu, eskola bai ala ez, IKTak bai ala ez, ikuspegi ideologikoaren arabera; beste modu honetan ulertzen badugu, aldiz, eginez eta sentituz eztabaida dezakegu zein momentutan diren beharrezkoak, nola hobe ditzakegun... Izan ere, eskola hobetzea ez da berez egin

daitekeen gauza bat, unearen araberakoa izango da eta ingurune sozial eta naturalarekiko harmonian.

Bibliografía

Javier ENCINA eta Ma Ángeles, ÁVILA (2015) *Sentidos, imaginarios, técnicas y herramientas en el ilusionismo social*. Javier Encina eta Ainhoa Ezeiza, Convivencialidad, tecnología y desempoderamiento (51-74). Ilusionista Sozialen Mintegia, UNILCO-espacio nómada. Sevilla/Donostia.

----- (2015) *En torno a los principios de Ilusionismo Social*. Javier Encina eta Ainhoa Ezeiza (koord.) De los modelos participativos a la construcción colectiva. Culturas populares, ilusionismo social y desempoderamiento. Gipuzkoako Foru Al-
dundia, Bitiji-Toreador de Pájaros. Donostia.

Javier ENCINA, Ma Ángeles, ÁVILA, José A. CASTRO eta beste (2015) Participando con y desde la gente. 3ª edición. Ilusionista Sozialen Mintegia. Donostia.

Ainhoa EZEIZA, Juan José CALDERÓN eta Mercedes JIMENO BADIOLA (2013) *La falsa disrupción de los MOOC: la invasión de un modelo obsoleto*. 6th International Conference on Open Education and Technology: MOOCs, PLE and eLearning Platforms. Zalla (Bizkaia), uztailaren 9tik 11ra.

Mariano FERNÁNDEZ ENGUITA (1985) Trabajo, escuela e ideología. Marx y la crítica de la educación. Akal/Universitaria. Madril.

Ivan ILLICH (2015) *La convivencialidad (textos seleccionados)*. Javier Encina eta Ainhoa Ezeiza (koord.) Convivencialidad, tecnología y desempoderamiento (75-118). Ilusionista Sozialen Mintegia, UNILCO-espacio nómada. Sevilla/Donostia.

Beatriz LUQUE eta Javier ENCINA (2007) *De las mediaciones consentidas a las mediaciones deseadas. Lo masivo y lo colectivo en los procesos de comunicación*. Cuchará' y paso atrás' 15, 21-38.

Jesús MARTÍN-BARBERO (2015) *Cuando la tecnología deja de ser una ayuda didáctica para convertirse en mediación cultural*. Javier Encina eta Ainhoa Ezeiza (koord.) Convivencialidad, tecnología y desempoderamiento (5-19). Ilusionista Sozialen Mintegia, UNILCO-espacio nómada. Sevilla/Donostia.

Jeremías QUIÑONES (2015) *Reflexión crítica sobre la incorporación de las TIC a la educación formal*. Javier Encina eta Ainhoa Ezeiza (koord.) Convivencialidad, tecnología y desempoderamiento (20-37). Ilusionista Sozialen Mintegia, UNILCO-espacio nómada. Sevilla/Donostia.